

Komeni zaigulako



UXUE APAOLAZA LARREA

Albistegietako sumarioetako lehen albisteak zein ziren ikusten aritu naiz, ideia bati tiraka. Baina etsi dut, edozeri buruzko edozer irakurriz, aktualitateaz pentsatzen jarri orduko, “uuuuu” luze bat entzuten dut. Eta amorrua sentitzen dut nire ez-parranda garaia orain egokitu delako. Aktualitatea kanta batean dago azken astean.

Ez naiz batere Shakirazalea izan, azken kantak eragin didanaren kontrakoa eragiten zidalako beti orain arte. Ez berak, bere kantek (eta folletoi itxurako melodramen artean, nahiago ditut Espainiako folkloriken gorabeherak). “Ez berak” hori garrantzitsua iruditzen zait, sortu diren debateetan nola sentitu naizen horrek definitzen baitu. Ez berak.

Nik ere izan nuen, hitzei adi jarrita, moralizatzeko tentazioa: “Zer erru du nobia berriak?”. Baina nobia berria ez dago kantan. Inor ez dago kantan. Kanta gaur atera da, baina betirako da, eta betirako paktua ez da abeslariaren eta bere bizitzaren eta gure artean, kantaren eta gure artean da. Eta ez da Rosaliaren *Despechá*, kanta hau señora batena da, haurrak eduki dituen, buruaskia dena... Urte asko listagoa da, eta hoge urteko pertsona bat bere ordezkariak lerroarte asko eta sakonak ditu, gizonari buruz. “Eta alderantziz balitz, gizon bat bere neska ohiaz?”. Oh, mama. Beti abestu da alderantziz.

Eta nik ere izan nuen, hitzei adi jarrita, antikapitalista jartzeko tentazioa: “Gure askatasuna fakturatzera al da?”. Abeslariari zilegitasuna ukatu nahi dioten kapitalista asko ari dira (bat-bateko katoliko zorrotz) zenbatzen bere balizko sufrimenduagatik zenbat fakturatu duen. Tira, ba bai, zuek bezain beste. “Komeni zaizuelako ari zarete orain zenbait gauza justifikatzen”. Ba bai, hori ere bai. Eta komeni bazaigu, aurrera, “uuuuu”. ●



Pobrezia

Munduko aberatsenen %1ak eskuratu du munduko aberastasunaren %63. 2019ko abendutik 2021eko abendura munduan sortu den aberastasunaren bi heren %1 aberatsenen esku geratu da, Oxfamek kalkulatu duenez. Muturrerantz ari dira aberastasuna eta pobrezia mende honetan.

Klima larrialdia

Science aldizkariaren ikerketak argi uzten du: ExxonMobil petrolio enpresa erraldoiak 1980ko hamarkadan jadanik bazekien bere aktibitateak klima larrialdia ondorioztatuko zuela. Froga bat gehiago da, berresten duena erregaien sektoreko boteretsuek aspalditik dutela horren berri.

Armagentza

Satlantis Microsats enpresa bizkaitarrak aldarrikatzen du gaurko “Gerra Hotz Berria” Mendebaldeari laguntzen diola: satellite-enpresa honek darama lidergoa Europako Defentsa Programaren esparruan 4,8 milioi euroko dirulaguntza jaso duten bi proiektutan.